

V.—Aita Intza'k esan digu Muñoa jaunaren ikastetxeko lanak: aurtengo urte beñetik Oñila-arte 104 mutil-aziyak gabazko ikastaroan izan dira ta denai euskeraz irakatsi zaye.

Egunezko ikastaroan 84 mutiko dabiltz ta oraintxe. Jesusen Zerurako Igokundean jai berezi bat izan dute, Gogoz entzun du auxe ere Euskaltzaindiak.

VI.—Aita Intza berak irakuñi dizkigu Aita Justo Maria Mokoroa'k Tolosa inguruan aurkitu dituen itz euskaldunak.

VII.—Motrikun idorotako aita Mendiburu'ren esku-idatz lan baten itzaurea Ormaetxea jaunak irakuñi digu.

VIII.—Eguskitza jaunak Azkue'ren *Morfologiari* adibide batzuek egin dizkio: *-la, -le, tzale, tale gaibidetzat artu-ta.*

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta ototzez amaitu da batzaraldia,

---

## Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1926'ko Oñila'ren 28'an.

Batzaraldian bildu diran jaunak abek dira: Azkue' Urkijo, Lande'etxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Intza ta Lakonbe euskaltzainak eta Ormaetxea ordezkoa.

I.—Azkue jaunak bere lantxo bat irakuñi digu: Luziano Bonaparte'k egindakoen beñi batzuek emateko: Bonaparte'ren lanak izen auxe du: Observaciones de la Lengua Vasca.

II.—Ormaetxea jaunak idazki bikain batez erantzuten diyo Navarro Tomas'i, onen *ejercicios fonéticos*

buru artu-ta. Auxe entzun da gero Euskaltzaindia gogoratu da Navarro Tomas'ek egindako *Manual de Fonética Española*, bere liburutegian ez duela. Baten jabe egitea erabaki du.

III.—Lakonbe jaunak jaraitu du: Intxauspe apezaren ezkutitzak irakurtzen.

IV.—Landeretxe jaunak, berak bilduriko esakerak.

V.—Azkue jaunak Aezkoa'ko ipui batzuek irakurri dizkigu.

VI.—Eguskitza jaunak beñiz alako euskal-itx berezi batzuek.

VII.—Euskaltzaindiak eskerak azaldu bear dizkiyo Belauntzaran Donostia'ko apaizari berebilaren bitartez laguntza asko egin diolako Euskaltzainburu jaunari.

Ta beste gairik izan ez-ta otoitzez amaitu da baztardia.

---